

TOLOSATZEN

– Parte hartze saio monografikoak eta aurrekontu lanketarako saioak –

Sarrera

Aurten, Tolosatzen prozesuaren baitan eta 2019ko udal aurrekontuen lanketari dagokionez, azken bi urteetan (2017-2018) alorrez-alor udalean aurrera eramandako jardueren berri eman (kontu emate fitxen bitartez) eta parte hartze programazio bat proposatu dugu Udala eta herritarrak, elkarlanaren bidetik, etorkizun hurbila erakitzen jarraitzeko.

Herritarrei eskura genituen partehartze espazio desberdinak eskaini dizkiogu: saio presentzialen bitartez, udal eraikin nagusietan kokatutako postontzien bitartez eta udal-web orrriaren bitartez partehartzeko eta ekarpenak egiteko aukera eman diegu.

Saio presentzialen kasuan, bi parte hartze espazio diferentziatu proposatu dizkiegu (nahiz eta biak lotura izan beraien artean): Saio monografikoak (tolosatzenen baitan jada identifikatuta edota martxan dauden proiektuen lanketari zuzendutakoak) eta 2019 urteari begirako saioak (jada martxan dauden proiektuei jarraipena emateko edota lan lerro edo proiektu berriak proposatzeko saioak).

Saio presentzialetan, udal teknikariez gain, 153 herritarrek parte hartu dute. 68 emakumek eta 85 gizonek. Horiek guztietatik 14 (5 emakume) 33 urtetik beherakoak.

Web orri bidezko ekarpenak 7 izan dira eta, beste hainbeste, postontzi bidezkoak.

Balorazioa

Parte hartzearen balorazio kuantitatiboari dagokionez, lehenik eta behin argi utzi beharra dago Tolosako gizartea oso parte hartzailea dela. Beraz, herritarren parte hartzea ezin da neurtu partehartze kopuruaren azterketa urteko garai zehatz bateko ekimenarekin lotuz.

Urte osoko parte hartzea da aintzat hartu beharrekoa. Izan ere udal departamendu desberdinen baitan burutzen diren proiektu desberdinen inguruan herritarren eta herri eragileen parte hartzea etengabea eta jarraia bai da urte osoan zehar.

Honela, udazkeneko saio hauek horiek guztien jarraipen gisa kontsideratu behar dira, baina balio erantsi batekin: urtean zehar alorrez alor egindakoa herri ikuspegiaren kokatzeko balio dute berriki burutu diren azken saio hauek eta hurrengo urteari begira planteatzen diren ekimen berriak ere herri ikuspegiaren logikan kokatzea ahalbidetzen dute.

Gainera, alorrez-alor jasotako ekarpen desberdinen arteko loturak identifikatzeko eta ekarpen guztiak helburu nagusien baitan koherenteki kokatzeko balio dute azken saio hauek.

Bestetik, azpimarratu beharra dago, urrats txiki baina sendoak ematen goazela herritarrekin erlazionatzeko moduan. Urrats horien artean azpimarratzekoak dira lehen aldiz parte hartze programazio bat landu izana eta udal departamendu desberdinen azken bi urteetako jardunari buruzko informazioaren berri modu argi eta grafikoa batean eman izana.

Hobetzekoak ere baditugu, noski. Garrantzitsuena, programazio hau denboran zabalduagoa izatea (17 saio izan dira hilabeteko epean) eta iraila bukaera eta urrian zehar burutzea.

Ekarpenak

Saio presentzialak

Alor eta eduki desberdinetako 17 saio presentzialetan jasotako proposamenak asko izan dira eta lehen gerturatze bat egitekotan, esan daiteke ekarpen guzti hauek bi multzotan sailkadaitezkeela:

1.- Egitasmo zehatzak direnak.

2.- Ideien mailako ekarpenak. Definizio handiagoa falta zaien egitasmoak. Hausnarketa bat eskatzen dutenak, baina ezinbestekoak direnak hurrengo urtean zehar lantzen eta definitzen joatea, orain arte bezala, bertatik eratorri ahal daitezkeelako epe motz-ertainean ekimen edo proiektu zehatzak berriak.

Alorrez-alor landu ta proposatutako egitasmo nagusien artean honakoak dira nire ustez nagusienak eta, hainbat kasutan, departamendu bati baino gehiagori eragin diezaieketenak (alor bakoitzeko teknikarien irakurketaren osagarri bezala kontsideratu beharko litzateke hau guztia; alorrez-alorreko teknikariak bai dira beren saileko ekarpenen eta eragileen ezagutza osoena dutenak):

GIZARTE ZERBITZUAK

- Irisgarritasun lanak burutzeko diru partida. Eragile desberdinekin modu partehartzailean kaleen irisgarritasunaren azterketa edota diagnostikoa egitea eta aktuzio desberdinak proposatzea, geroago gauzatzeko (Hirigintza departamenduan kokatzen den aktuzioa, baina, besteak beste, diagnostikoan parte hartuko luketen kolektiboen ezaugarriak kontuan hartuz Gizarte Zerbitzuetako departamenduarekin batera kudeatu beharrekoa, besteak beste. Mugikortasun Planarekin lotu beharko litzateke ere).

- Behar bereziak dituzten kolektiboen beharrak aintzat hartu, balioan jarri, ikusgarritasuna eman (mugikortasunaren gaiarekin, kultur eskaintzarekin, ikusgarritasun mediatikoarekin



zerikusia duen gaia. Gormutuen kasuan udalarekin hitzarmen bat eskatzen duena adibidez; arazo kognitiboak dituzten kolektiboen kasuan kale seinalitika egokitzea, eta abar).

- Formakuntza dirulaguntzen tramitaziorako (Kultura, Gazteria, Kirola eta beste hainbat sailekin lotura duen gaia. Gobernantza departamendutik bideratu asmo dena).

- Elkarteen topaketa antolatzea bi urtean behin. Azkena 2017ko abenduaren 1ean izan zen eta beraz, hurrengoa 2019an ospatuko litzatzeke.

- Elkartasun eguna antolatzea. Egutegiko egun zehatz bat elkartasun eguna izendatzea (Hezkuntza Mahaiarekin lotura luke gai honek).

EUSKARA ETA HEZKUNTZA

- Euskara: Herri marka bilakatzea (“Tolosa Kultura”, sormenaren herria, ideien ildoan, baina akaso hauekin talkan. Ikuspegi orokor batetik aztertu beharrekoa).

- Euskara: Aliantza publiko-pribatuak sustatu “Eredugarriak” aterkipean. Praktika eredugarriak bultzatu sektore pribatuan euskararen inguruan.

- Hezkuntza: Gazteria eta aisia gaiei buruzko diagnostikoarekin lotura izango luke, zientzia eta teknologia berriekin lotura izango luken bezala, aisialdi eskaintzaren barruan proposamen berriak landuz. Ezagutza bide berriak sustatuz (gazteriaren inguruko diagnosian kokatu beharrekoa).

GARAPEN EKONOMIKOA

- Aliantza publiko-pribatua sustatu eta, Euskararen kasuan “eredugarriak” aipatzen ziren bezala, oraingoan “enbaxadoreak” aterkipean kokatu aliantza eredugarriak (Euskara ere barne hartu ahalko luke ekimen honek).



- Enpresaren mundua, ikasketen mundua eta ekintzailtza lotuko lukeen ekimen zabal bat. Gazteei begirakoa izan daitekeena (Zentzu honetan gazteei buruzko diagnostikoaren lan lerroetako bat).

KIROLA

- Ferialekua. Erabiltzaileek lehen bai lehen Ferialekua kirol ekintzak burutzeko espazioa izango den ala ez politikoki erabakitzea eskatzen dute. Eta baiezkotan beharrezko inbertsioak aurreikustea. (aldagelak,).

- Monitorean, aisialdiko arduradunen formakuntza (Euskara, Berdinatsuna, Aniztasun...alorrekin guztiz lotuta eta lanketa oso bat egitea eskatzen duena). Balorrekin lotuta.

- Usabalen masifikazioa. Espazio desberdinen inguruko erabilpen arauak.

- Kirol espazio desberdinen eta hauetan burutzen diren erabilpenen inguruko azterketa, ekintza desberdinen uztarketa lantzeko (udal ekipamendu sozio-kulturalekin egin bezala, kirol instalakuntzen diagnostiko bat erabileren ikuspuntutik. Espazioen kudeaketa ereduarekin lotura izan dezakeen gaia).

- Dirulaguntzak. Dirulaguntzen baitan minimo batzuk eskatu beharko liratezke (Zeharkako gaia da. Beste alorretan ere dirulaguntzen inguruan egiten diren eskaerekin batera aztertu beharrekoa).

KULTURA

- Tolosa sormenaren hiria (Ciudad creativa). Tolosa Kultura, Tolosa Euskara.....Ikurren inguruan lanketa bat egin beharko litzateke, azterketa bat (ekimen publiko-pribatuaren alorrean kokatu daiteken beste egitasmo bat).

- Inklusioa (Hirigintza alorrean irisgarritasuna eskatzen den bezala, gizarte zerbitzuarekin



erlazio zuzenagoa duten eragileek eskatzen duten inklusibotasuna bezala, kultur ekintzetan ere inklusibotasuna aintzat hartzea eskatzen da).

- Kultur eragileen zentsoa.

- Tolosaldeko autobus kulturala (Tolosan antolatzen diren ekintza kultural zehatz berezien baitan ikus-entzule berriak gerturatu daitezzen ahalbidetzeko).

- Formakuntza programa. Antzerkirako.

GAZTERIA

- Gazteentzako komunikazio kanal bat (gazteek profesionalekin definitu beharrekoa eta bitarteko tekniko egokien bidez garatu beharrekoa).

- Gazteentzako espazioak eta kudeaketa eredu berriak (udal ekipamenduen azterketarekin lotuta; gazteentzako espazio eta erabilpen eredu berriak).

- Gazteen inguruko diagnostikoa (Berdintasuna, Kultura, Garapen Ekonomikoa, Gizarte Zerbitzuak bezalako alorretan eskatu dena ere).

- Dirulaguntzak. Minimoen inguruko hausnarketa (dirulaguntza jasotzearen truke herriari begira egin beharreko ekarpen minimoen inguruko hausnarketa eta konpromezuak) eta formakuntza (dirulaguntzak eskatzen dituzten kolektibo desberdinei begira).

- Gazteak eta aisia. Formakuntza (Zeharkako beste gai bat).

BERDINTASUNA

- Hezkuntza/hezkidetza. Hezitzaileei eta gurasoei zuzendutako prestakuntza saioak (kirola, euskara eta gazterian ateratakoakin bat eginez).

- Maskulinitate eredu berriak, lan mundua..... (Hezkuntza mahaiarekin lotura izan dezake,



hezkidetza proiektuarekin ere lotura duen heinean).

- Genero-zeharkakotasuna udal politika publikoan, parte-hartze prozesuetan eta herritarrekin lotutako proiektu eta politiketan.
- Emakume gazteen jabetzea sustatu (Gazteen diagnostikoarekin lotutakoa, baita hezitzaileen formakuntzarekin).

INGURUMENA

Energia alorra.

- Eraikin eredugarri bat egin, bioklimatikoa. Birgaitze energetikoa bultzatu.
- Energia sortzeko instalazio bat egin. Fotovoltaikoa edo eolikoa eta distribuitua. Ahal bada herritarren parte hartzearekin.

Mugikortasuna

- Bidegorriak konpondu eta bizikleten erabilera egokia bultzatu.
- Bizikleta elektriko publikoak jartzeko aukera aztertu.
- Kotxe elektrikoentzat karga puntuak jarri. Jendeari informatu mugikortasun elektrikoari buruz.
- Car Sharing edo kotxeak konpartitzea sustatu.

Hondakinak

- Ekonomia zirkularrerako pausuak eman, baserria eredu bezala hartuta.
- Hondakinen jatorrian fokua jarri, dendetan prebentzioari garrantzia emanaz.
- Tolosa plastikorik gabeko herria izendatu.
- Inauteriak baliatu jarduera eredugarri bat egiteko hondakinen prebentzioan.
- Komertzioarekin “zigilu berdearen” ekimena sustatu. Ingurumenaren alde edo hondakinak gutxitzeko egiten dituzten ekimenak errekonozitzeko.



Hirigintza alorrekoak:

- Zumardi txikiaren proiektuarekin aurrera jarraitu, kotxeak hortik atera.
- Herri barruko gune berdeak sustatu, konektibitate ekologikoa landu, Zumardi txikia, Elosegi...
- Industria aktibitate zentsua garatu, ingurumen kontrola errazteko.

Ingurumen Hezkuntza

- Baso eskolako proiektua indartu. Eremu publikoetan parke edo jolas leku "naturalak" sortuz eta baso pribatuen jabeekin hitzarmenak eginez bertan baso eskola egin ahal izateko. Estalpe edo babes guneak egin baso eskolarako, Uzturre aldean.
- Tolosako-Tolosaldeko Ingurumen Zentroa (TIZ) Tolosa erdira ekarri.

Landa eremua, biodibertsitatea

- Mendi-bideak markatu, txukundu, sustatu.
- Ekosistema aberats eta baliotsuak udalak berreskuratu ditzan aurrekontu partidak ezarri.

Elkartegintza

- Ingurumen alorrean dabilzan elkarteei lagundu, balioan jarri. Dirulaguntza lineak ireki.

Postontzi eta web bidezko proposamenak

Atal honi dagokionez azpimarratu beharra dago zailtasun berezia suposatzen duela herritarrarentzat, saio presentzialekin alderatuta, tolOsatzenen baitan onartutako ardatz desberdinen baitan proposamenak egin ahal izatea.

Saio presentzialen abantaila nagusia saioak parte-hartze metodologia batez lagunduta burutzen direla da. Metodologiaren laguntzaz herritarra plangintzaren ardatz eta



helburuetan kokatzea errezagoa da eta hortik beren ekarpenak egokiago lotu ahal izatea orain arte burututako jardunen jarraipen logikan eta aurrez adostutako helburueta.

Baina, aipatu metodologiaren laguntza edo gidaritzarik gabe zailtasuna handiagoa da eta arrazoi nagusi honengatik beharrezkoa da hurrengo esperientziei begira hausnarketa bat zabaltzea lotura hori errazagoa izan dadin eta zuzeneko saioetan parte hartzen ez duen herritarra gaian kokatuagoa sentitu dadin.

Edonola ere, ekarpen interesgarriak jaso dira bide hauetatik ere eta horien artean adierazgarrienak hauek izan daitezke:

BALOREETAN OINARRITUTAKO GIZARTE KONPROMETITUA ETA INKLUSIBOA

- Baloreetan oinarritutako zehar-lerroko herri kurrikulum bat garatzea.
- Kirola berriz ere kalera ateratzeko helburuarekin, herriko paretaren bat eskalatzeko moldatuko nuke, Ibarrako kiroldegia atzean dagoenaren antzera. Jendea kiroldegietatik atera eta gazteak mugikorrez haratago jolasteko aukerak badaudela ikustarazteko bidea izan daiteke.

HERRI HEZITZAILEA ETA IREKIA, EUSKARAN ARNASGUNEA ETA KALEA HERRITARREN TOPAGUNEA

- Zientzia eta Teknologia alorrean sortzailetasuna eta ekintzailetasuna bultzatzeko "BIZILABE" deituriko proiektua garatzea. ELHUYAR bultzatzen ari den egitasmoa da eta lekuren bila dabilta. Horretarako ARKAUTE txaleta gune egokia izan daiteke, Santa Luziako ikasguneetik gertu. Hezkuntza Publikoa dagoen egoitza, Santa Luzia ikasgunea, garatzea eta herriari begira hainbat ikas eta kirol zerbitzu han kokatzea.

- Euskara ikasteko erreztasunak eman.



GARAPEN IRAUNKOR AINTZINDARIA, KLIMA ALDAKETAREN AURREAN KONPROMETITUA

- Apostu sendoa udalaren partetik kotxe elektrikoa ezartzeko.
- Tolosako Alde Zaharreko biztanleen deskantsua bermatzea asteburu eta jai egunetan. Kaleko soinu, zarata eta terrazak sortutako zarataren kontrola, denon elkarbizitza inklusiboa izan dadin eta bertako bizilagunen deskantsu eskubidea errespetatzeko. Orokorrean, kutsadura akustikoaren aurreko konpromisoa.
- Zumardi-txikiren erregenerazioa.

GARAPEN EKONOMIKO EREDUA OREKATUA ETA DUINA, PERTSONA ERDIGUNEAN

- Ekonomia berde eta zirkularraren aldeko apostu sendo bat egitea.
- Maker tailer moduko bat sortzea. Modu honetan norberak merkatuan dauden produktuez gain bereak sortu, garatu eta molda ditzake programazioa, robotika, 3d inpresioa antzeko erreminten bitartez.
Matxuratutako produktuei bizia luzatzeko tailerrak antolatu daitezke bertan.
- Un estudio para identificar los negocios y empresas implantados en Tolosa que pudieran tener problemas en el futuro por su evolución, e identificar hacia donde podría ser recomendable transformarse.
- Dendak zabaltzeko errestasunak ematea.



Hurrengo pausoak....

Proposamen guztiak maila teknikoan aztertu eta dagozkien Batzorde informatiboan aurkezten dira. Batzordeak diktaminatu eta, hala badagokio, udal gobernuaren erabakiz 2019 urterako lan programan jasotzen dira.

Gogoratu behar da egitasmo guztiak ez dutela zergatik adierazpen monetarioa izan behar. TolOsatzenen ardatza proiektuak dira; herritarrekin batera landu eta burutzen diren proiektuak. Eta batzuek eragin ekonomikoa dute eta beste batzuek ez. Ezin da termino ekonomikoetan neurtu soilik herritarrek egintako proposamenen bideragarritasuna.

Bestetik, partehartzaile guztiei modu zuzenean eta herritarrei ohizko bideen bitartez, deboluzio txosten bat aurkeztuko zaie, partehartu duten saioak emandakoaz gain, ondorio orokorreari buruzko informazioa jaso dezaten.

Tolosa, 2018ko abenduaren 5a.

Garikoitz Lekuona Izeta
Partaidetza arduraduna